XEDAPEN OROKORRAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

877

1937/2011 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuari atxikitako kontratazio-mahaia sortzeko dena.

Azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren estatutuak ezarri ziren. Dekretu horren 20.4 artikuluak xedatzen duenez, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak beharrezko iritzitako kontratazio-mahaiak sortuko ditu, entitate publikoaren erakundeen tamaina aintzat hartuta, eta Administrazio Kontseiluak horretarako baimena eman ondoren. Mahai horien egitekoa kontratazio-organoari kontratuak esleitzen laguntzea izango da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 320. artikuluan ezarritako aurreikuspenak betez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren estatutuak onartu zituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20.4 artikuluak honako hau ezartzen du:

«Sortzen diren kontratazio-mahaietako kideak honako hauek izango dira:

a) Lehendakaria: erakundeko zuzendaritza-kargua, kontratazio-organokoa ez dena.

b) Bi bokal, kontratazio-organoak izendatutakoak.

c) Bokal-idazkari bat. Kontratazio-organoak izendatuko du erakundeari atxikita dauden legelarien artetik edo zuzenbidean lizentziatu diren kudeaketa-teknikarien artetik. Lege-aholkulari eta mahaiko idazkari arituko da, hitza zein botoa dituela».

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren bidez (2011ko abenduaren 16ko EHAA, 237. zk.), Gipuzkoako eremu sanitarioan, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratua eratu zen, eta erakunde horren barruan honako hauek zeuden: Zumarragako Ospitalea, Azpeitia, Azkoitia, Legazpia, Zumarraga, Lazkao, Ordizia eta Beasaingo lehen laguntzako unitateak (dagoeneko desagertua den Gipuzkoa-Mendebaldeko eskualdean zeudenak).

Osakidetza Erakunde Publikoaren estatutuetan ezarritako prozedurari jarraiki, eta administrazio-kontratazioa planifikatu eta egikaritzea atzeraezinak direla aintzat hartuta, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratua bateratu eta integratu beharra dago.

Horregatik, Zuzendaritza Nagusi honek, legez eman zaizkion ahalmenez baliatuta, hau

EBAZTEN DU:

Zumarragako zerbitzu-erakundeko kontratazio-mahaiaren osaerari buruzko aurreko ebazpen guztiak indargabetzea, eta sortu berri den Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuarentzat mahai berri bat sortzea, aurrekoa ordeztuko duena, eta kide hauek izango dituena:

Lehendakaria:

Titularra: Laura Aguirre Alberdi – Ekonomia eta Finantzako zuzendaria.
Ordezkoa: M.ª Luz Jáuregui García – Zuzendari medikoa.

Lehengo bokala:

Titularra: M.ª Jesús Arocena Ciganda.
Ordezkoa: Ane Miren Arrázola Hernández.

Bigarren bokala:

Titularra: Antonio Bolinaga Carriqui.
Ordezkoak: M.ª Isabel Salegi Mendizabal.

Bokal-idazkaria:

Titularra: M.ª Dolores Blanco Pompeyo.
Ordezkoa: M.ª Teresa Jiménez Sáez.

Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (4/1999 Legeak aldatua) 107., 114. eta hurrengo artikuluetan ezartzen den moduan, ebazpen honen aurka –ez baitu administrazio-bidea amaitzen– gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.